

Funtsezko elkarteak

ENDERTEKA NEGOTIO EREDUA



Zergatik dira garrantzitsuak gure hornitzaile eta bazkide nagusiak?

Gure negozio ereduaren hasteko, **ezinbestekoak** ditugu hornitzaile eta bazkideak, izan ere, haiek izango dira enpresa martxan jartzeko **material guztia** hornituko digutenak. Hori kontuan harturik, hainbat hornitzaile zein bazkide izango ditugu.

Eusko Jaurlaritza

Gure bazkide nagusia **Eusko Jaurlaritza** da, diru laguntza publikoen bitartez egingo baitugu lan.



Hornitzaile eta bazkide nagusiak

Aipatzekoa da, gure hornitzaile oro, **tokiko enpresak** edo **enpresa txikiak** direla, bertako produktuaren balioa sustatzeko asmoz, ekonomia berde baten bila.



IZARKOM



Wifi-a, telefono zerbitzuak eta argi zerbitzuak hornituko dizkigute.

PAPRESA



Papera hornituko digute haren deribatu posible guztietan.

ZUHAIZKI S.L.



Mahaiak, aulkiak, egurrezko beharrezko edozein material.

XENON COMPUTER



Ordenagailuak eta teknologiarekin zerikusia duen guztia hornituko dute.

FAGOR



Beharrezkoak ditugun elektrodomestiko guztiak hornituko dizkigute.

OARSO S.A.



Komunerako oinarrizko material guztia hornituko digute.

ELKAR



Liburuak, bolalumak, gure ikasleek beharrezkoa duten material guztia.


SEIN IZARRA



Kafetegian eta tabernan kontsumituko diren edari guztiak hornituko dizkigute.

Harremana

Enpresa guzti hauekin **konfiantzazko** eta **gertuko harreman** bat izatea bilatuko dugu, izan ere, haiek dira gure negozio ereduaren **bigarren giltza**. Haiek gabe ezin izango litzateke gure proiektua aurrera eraman.



Eta zuk, ba ahal zenekien gertuko enpresa hauen inguruan?

Gure negozio ereduarekin hasi ginenean, ez ginen jabetuak honelako gertuko enpresetaz, izan ere, ezagunak genituenak enpresa arrakastatsu eta handiak soilik ziren. Horregatik, adostu dugu tokiko enpresa eta enpresa txikiak **babestuko** ditugula, **gure enpresa hazi bitartean, haiena ere hazi dadin!**